



AKTEA
BERMEOKO UDALEKO OSOKO BILKURA
 (2025-09-25/06)

Bilkuraren izaera:	Ohikoa
Deialdia:	1. deialdia
Data:	2025-09-25
Lekua:	Udaletxeko osoko bilkurako areto nagusia
Hasiera-ordua:	17:29
Amaiera-ordua:	18:03

Bertaratuak

Alkate-Presidentea: Nadia Nemeh Shomaly (EH BILDU)

Zinegotziak:

Zigor Uriondo Arrue (EH BILDU)	Idoia Platas Arenaza (EAJ-PNV)
Endika Etxebarria Telleria (EH BILDU)	Ainhoa Jayo Madariaga (EAJ-PNV)
Arantza Ormaza Tarantino (EH BILDU)	Ibon Legarreta Erkiaga (EAJ-PNV)
Xabier Ortuzar Butron (GUZAN)	Alazne Zumeta Garro (EAJ-PNV)
Miren Karnele Gabantxo Uriagereka (GUZAN)	Kepa Zumeta Garro (EAJ-PNV)
Iker Bilbao San Nicolas (GUZAN)	Jose Luis Arruza Alboniga-Mayor (EAJ-PNV)
Maite Caruezo Ugalde (GUZAN)	Ander Garate Ormaza (EAJ-PNV)
	Ixone Soroa Güenaga (EAJ-PNV)

Bertaratu ez direnak:

Victor Uriarte Anasagasti (EH BILDU)



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
 ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Datea: 01/10/2025
 Lekua: Bermeon
 Erregistro unidatea:
 Erregistro nagusia

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



Idazkaria: Jose Ramon Alberdi Asteinza

Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2025-07-30 OB (05)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.
- 3.- Bermeoko Udalak maiztasun modulatuak uhin metrikoen bidezko irrati-lizentzia eskuratzeko egin behar diren izapideak egitea onartzea.
- 4.- 21.2 Exekuzio Unitateko 14. partzelaren Xehetasun Azterlana behin betiko onartzea.
- 5.- EAJ-PNV-k aurkeztutako "Elkarbizitzaren alde eta Ertzaintza eta udaltzaingoen defentsan" mozioa onartzea.
- 6.- EH-Bildu eta Guzan-ek aurkertutako " Demokraziaren alde eta polizia-eredua berrikusketearen aldeko mozioa" onartzea.
- 7.- Egonkortasun helburuaren betetzearen txostena 2024ko kitapenean. Foru Araua 5/2013ko 6.5 artikuluaaren prozedura.
- 8.- 2025eko 4686-5758 zenbakidun alkatetza dekretuen berri ematea.
- 9.- Eskari eta itaunak.

Presidenteak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkura hasi du eta deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaiz honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA: 2025-07-30 OB (05)

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=32&t=79>

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Fecha: 01/10/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Batzarkideek 2025eko uztailaren 30eko 05/2025 akta aho batez onartzea erabaki dute.

2.-BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=32&t=94>

Ander Garate Ormaza-k (EAJ-PNV) adierazi du gai zerrendako 4. puntuan interes pertsonala edo familiakoa duela.

3.-BERMEOKO UDALAK MAIZTASUN MODULATUKO UHIN METRIKOEN BIDEZKO IRRATI-LIZENTZIA ESKURATZEKO EGIN BEHAR DIREN IZAPIDEAK EGITEA ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=32&t=113>

Xedea

Bermeoko Udalak maiztasun modulatu uhin metrikoen bidezko irrati-lizentzia eskuratzeko egin behar diren izapideak egitea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2025eko uztailaren 29an 2025/00011042 zenbakidun erregistro sarreraren bitartez Kostarri Kultur Elkartek Bermeoko Udalak maiztasun modulatu uhin metrikoen bidezko irrati-ikus-entzuneko komunikazio-zerbitzu publikoa emateko eskaera aurkeztu du.

Bigarrena: 2025eko abuztuaren 27an, Idazkaritza Saileko AOTk Justifikatze Memoria emon dau.

Hirugarrena: 2025eko abuztuaren 27an, Idazkaritza Saileko AOTk txosten juridikoa emon dau.

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Data: 01/10/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Laugarrena : 2025eko irailaren 18an, erakunde batzordean adostu da uhin metrikoen bidezko irratia izateko egin behar diren izapideak egitea onartzea.

Argudioak

Lehenengoa: Espainiako Konstituzioaren 137. artikulua arabera, Estatua udalerrian, probintzian eta eratzen diren autonomia-erkidegotan antolatzen da. Erakunde horiek guztiek autonomia dute beren interesak kudeatzeko.

Testuinguru horretan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.1 artikulua ezartzen du udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, behar horiek asetzen lagunduko duten jarduerak sustatu eta zerbitzu publikoak eman ditzakeela eta auzo-erkidegoaren helburuak, artikulua honetan aurreikusitako baldintzetan.

Jarduteko gaitasunaren gaikuntza orokor horren ondoren, agindu horren 2. paragrafoak udalerriek, betiere, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legediaren arabera gauzatuko dituzten eskumen batzuk jasotzen ditu. Hala, manu horrek udalerrien berezko eskumenen artean zerrendatzen du, zehazki m) letran, kulturaren sustapena.

Era berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.20) artikulua udalei ematen die eskumena kultura eta kultura-jarduerak antolatzeko eta sustatzeko eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzeko. Eta artikulua horren 30. atalak udalerriei esleitzen die herritarren partaidetzarako, gardentasunerako, gobernu onerako eta teknologia berrietarako sarbiderako egiturak antolatzeko eta kudeatzeko eskumena. Administrazio elektronikoa, prozeduren arrazionalizazioa eta sinplifikazioa. Bereziki, udalerrian herritarrek informazioaren eta komunikazioen teknologien erabilera eraginkor eta jasangarrian parte har dezaten sustatzea.

Bigarrena: Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko uztailaren 7ko 13/2022 Lege Orokorra Espainiako Konstituzioaren 149.1.27 artikuluan xedatutakoaren babesean eman da; artikulua horrek irratia eta telebista-araubidearen oinarritzko arauak emateko eskumena esleitzen dio Estatuari, eta, oro har, gizarte-hedabide guztiena, hargatik eragotzi gabe haiek garatu eta betearaztean autonomia-



Agiri hau benetakoa dela udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Data: 01/10/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



erkidegoei dagozkien ahalmenak, salbu eta III. tituluko 5. kapitulua, VIII. titulua eta azken xedapenetako laugarrena, horiek ez baitute oinarritzko izaerarik. Konstituzio-jurisprudentziarekin bat etorritik (batez ere, Konstituzio Auzitegiaren 78/2017 epaia; 86/2017 epaia eta 48/2018 epaia), ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua emateko oinarritzko arauak ezartzen ditu, eta autonomia-erkidegoen eskumena da arau horiek garatzea eta zehaztea beren eremurako.

Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko uztailaren 7ko 13/2022 Lege Orokorraren 50. artikulua ezartzen du ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa interes ekonomiko orokorreko funtsezko zerbitzu bat dela, Estatuak, autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek ematen dutena, eta askotariko ikus-entzunezko programak, edukiak eta zerbitzuak ekoiztea, editatzea eta hedatzea duela xede, era guztietako publikoentzat eta mota guztietako generoentzat, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen, telebista-zerbitzuen eta konektatutako telebista-zerbitzuen eta telebista-zerbitzuen bidez.

51. artikulua adierazten du ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoaren egitekoa dela:

- a) Konstituzioko printzipioak eta balioak sustatzen dituzten programak zabaltzea, eta, bereziki, berdintasunarenak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, informazio-askatasunarena eta adierazpen-askatasunarena ere barnean hartuta, iritziz publiko anitza eratzen laguntzeko.
- b) Gizartearen aniztasun politiko, sozial eta kulturala islatzea programazioan.
- c) Gizartearen kultura-, zientzia-, historia- eta arte-jakintzarako sarbidea sustatzea, eta haren informazio-, kultura-, hezkuntza- eta entretenimendu-beharrak asetzea, kalitatezko programen bidez, bai eta haurrei eta herritarren alfabetatze mediatikoari bereziki zuzendutako programen bidez ere.
- d) Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna ezagutaraztea.

Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoaren emaileek, zerbitzu publikoaren xedea betetzean, unibertsalitatearen funtsezko balioei lotuta jardungo dute sarbidean, independentzian, aniztasunean, berdintasunean, berrikuntzan,

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Data: 01/10/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



bikaintasunean eta erantzukizunean, eta, nolanahi ere, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko uztailaren 7ko 13/2022 Lege Orokorren I. tituluan ezarritako ikus-entzunezko komunikazioaren printzipio orokorreari jarraituz.

Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa emateari dagokionez, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko uztailaren 7ko 13/2022 Lege Orokorren 53.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek erabaki ahalko dute ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa irekian ematea, izaera orokor edo tematikokoa, kasuan kasuko eremu geografikoetan gertatzen diren zirkunstantzia eta berezitasunen arabera, lege honetan eta dagokion araudi autonomikoan ezarritakoaren arabera.

Gainera, autonomia-erkidegoan eta toki-eremuan lurreko uhin hertziarren bidez ikus-entzunezko zerbitzu publikoa emateko akordioa lizentziaren baliokidea den titulu gaitzailatzat hartuko da, eta zerbitzua emateko erreserbatutako jabari publiko erradioelektrikoa modu pribatiboan erabiltzeko emakida bat izango du, Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorrarekin bat etorritz.

Toki-eremuan ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa emateari dagokionez, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko uztailaren 7ko 13/2022 Lege Orokorren 75. artikulua ezartzen du toki-erakundeek tokiko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa lurreko uhin hertziarren bidez ematea erabaki ahal izango dutela, autonomia-erkidegoak dagokion plan tekniko nazionalaren arabera bere esparruan ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak esleitu ondoren. Alde horretatik, artikulua horren 2. atalaren arabera, toki-erakundeek zuzenean kudeatuko dute tokiko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoaren eskaintza, beren organo, bitarteko edo erakundeen bitartez. Gainera, toki-erakundeek ezingo dute parte hartu, ez zuzenean, ez zeharka, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuaren lizentzien titularren kapital sozialean, eta tokiko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa dagokion autonomia-erkidegoko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuaren emaileen erregistroan inskribatu beharko da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Data: 01/10/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



Hirugarrena: 2011ko azaroaren 23an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 222. zenbakian azaroaren 8ko 231/2011 Dekretua argitaratu zen, ikus-entzunezko komunikazioari buruzkoa.

Dekretu horren IV. Kapituluaren ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa arautzen da eta 20. artikulua araber, Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeek ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa ematea erabaki dezakete, beti ere, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak dagokion ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa emateko gaikuntza titulua esleituz gero.

Ganera, 21. artikulua araber, Toki erakundeek gobernu-organoei dagokie zerbitzu publikoaren edukiak identifikatzea, bai zerbitzu publikoaren kudeaketa eta eginkizuna kontrolatzea ere.

Laugarrena: Bermeoko Udalak, herritarrak uneoro informatuta izateko eta Lege aginduz eskatzen dan gardentasuna bermatzeko betebeharra dauka eta, horretarako, publizitate aktiboa egin behar dau. Publizitate aktibo horren hedadura eragingarriko, besteak beste, herri irrati baten beharizana ikusten da.

Bestalde, Bermeoko Udalaren Legealdi Planeko ardatz estrategikoetako bat, Bermeo bizia da eta, ardatz honen barruan, herria erakusleho artistiko eta kulturala bihurtzearen, herriko ondare kulturala eta identitatea balioan jartzearen, Bermeoko jaiei hauspoa ematearen eta Herritarrak euskaraz bizi daitezen lortzeko, euskara bereizgarri eta erakargarri egitearen helburu estrategikoak dauz.

Ganera, herria erakusleho artistiko eta kulturala bihurtzearen helburu estrategikoan aurreikusten dan ekintzetako bat, maiztasun modulatu uhin metrikoe bidezko herri irrati abiaraztearen ekintza aurreikusten da, urrekoea, euskalduna eta bertoko informazioari lehentasuna emoten deusona.

Bermeoko udal irratiak honako ezaugarriak izan beharko lituzke:

- Titulartasun publikoko komunikabidea izatea, administrazio publikoaren eta bizilagunen artean informazio-kanal berriak ezartzeko sortua.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Data: 01/10/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaada:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



- Tokiko komunikabide gisa konfiguratzeari, bai bere emisio-eremuari dagokionez, bai programazioaren edukiei dagokienez (tokiko eremuak, hezkuntza-eremuak eta espazio soziokulturalak ditu).
- Titulartasun publikoko baliabide gisa, informazioen objektibotasuna, egiazkotasuna eta inpartzialtasuna bermatu behar ditu.
- Informazioa eta iritzia bereiztea, Espainiako Konstituzioaren 20. artikuluko 4. atalak ezartzen dituen mugekin.
- Konstituzioko balioak, iritzi publiko anitza, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna, eta jakintza eta arteak zabaltzea nahiz gutxiengoei arreta eskaintzea sustatzen dituzten edukiak zabaltzea.
- Gizonen eta emakumeen arteko askatasuna eta berdintasuna sustatzea, gazteak eta haurrak babestuz.

Beste alde batetik, frekuentzia-modulazioa duten uhin metrikoetako soinudun irrati-difusioko plan tekniko nazionala onartzen duen irailaren 1eko 964/2006 Errege Dekretuaren 13. artikuluen arabera, frekuentzia modulatu soinudun irrati-difusioko emisoraren ezaugarri teknikoak hauek izan beharko dira:

- Udal irratiaren zerbitzugunea udalerriko gunen nagusia izango da.
- Ezaugarri teknikoak dagokionez, hurrengo irizpideak jarraitu behar dira:
 - Maiztasuna 107.0 MHz eta 107.9 MHz arteko bandakoa izango da.
 - Itxurazko erradiatutako potentzia (PRA) biztanleriaren arabera izango da:
 - Biztanleria > 50.000 → PRA = 500 W
 - $50.000 \leq \text{biztanleria} \leq 10.000$ → PRA = 150 W
 - Biztanleria < 10.000 → PRA = 50 W
 - Antenaren erreferentziazko altuera 37.5 m
 - Ahal dela Irratia herrigunean kokatu beharko da (baldintza: beste zerbitzuetan interferentziarik ez eragitea eta emisio erradioelektriko zein eremu elektromagnetikoekiko esposizio mugak errespetatzea)



Agiri hau benetakoa dela udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Fecha: 01/10/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



Bosgarrena: Zerbitzu publikoa kudeatzeko era edo bide egokiari dagokionez, 13/2022 Legearen 75.2 artikulua ezartzen du toki-erakundeek zuzenean kudeatuko dutela beren organo, baliabide edo erakundeen bitartez. Era berean, 231/2011 Dekretuaren 21.3 artikulua adierazten du toki-erakundeei dagokiela edukiak aukeratzea, kudeaketa kontrolatzea eta ikus-entzunezko komunikazioaren zerbitzu publikoaren funtzioa betetzea.

Zuzeneko kudeaketari dagokionez, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85.2 artikulua arabera:

“Los servicios públicos de competencia local habrán de gestionarse de la forma más sostenible y eficiente de entre las enumeradas a continuación:

A) Gestión directa:

a) Gestión por la propia Entidad Local.

b) Organismo autónomo local.

c) Entidad pública empresarial local.

d) Sociedad mercantil local, cuyo capital social sea de titularidad pública.

Solo podrá hacerse uso de las formas previstas en las letras c) y d) cuando quede acreditado mediante memoria justificativa elaborada al efecto que resultan más sostenibles y eficientes que las formas dispuestas en las letras a) y b), para lo que se deberán tener en cuenta los criterios de rentabilidad económica y recuperación de la inversión. Además, deberá constar en el expediente la memoria justificativa del asesoramiento recibido que se elevará al Pleno para su aprobación en donde se incluirán los informes sobre el coste del servicio, así como, el apoyo técnico recibido, que deberán ser publicitados. A estos efectos, se recabará informe del interventor local quien valorará la sostenibilidad financiera de las propuestas planteadas, de conformidad con lo previsto en el artículo 4 de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera.”

Beraz, zerbitzu hau arautzen duen araudiak ezartzen du toki entitateak berak zuzenean kudeatu behar duela zerbitzu mota hori.

Hala ere, toki-erakundeak, toki-erakunde autonomoak eta tokiko enpresa-erakunde publikoak zuzenean kudeatuta zerbitzua emateak soldata-masa handitzeko beharra ekartzen du automatikoki, zerbitzua emateko behar diren



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Fecha: 01/10/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unitadea:

Erregistro nagusia

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



plaza berriak sortzen delako, eta urratu egingo litzateke 2023rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 31/2022 Legean xedatutakoa.

Azaldutakoaren arabera, Udalak zerbitzu publikoa emateko baliabide propiorik ez izanez gero, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85.2 artikulua ezartzen du toki-eskumeneko zerbitzu publikoak modu jasangarrienean eta eraginkorrean kudeatu beharko direla, zeharkako kudeaketa ahalbidetuz, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bateginean zerbitzu publikoak kudeatzeko kontraturako aurreikusitako modu desberdinen bidez; betiere, espedientearen baliabide propioen eskasia behar bezala justifikatuta badago.

Ildo honetan, Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 30.3 artikuluan ezartzen duenez, Administrazioak berak eman behar ditu zerbitzuak, normalean, bere baliabide propioekin. Gaineratzen du, hala ere, baliabide nahikorik ez duenean, eta espedientearen behar bezala justifikatu ondoren, zerbitzu kontratuari buruzko Legearen arauetan ezarritakoaren arabera kontratatu ahal izango dela.

Seigarrena: Esandako guztiaren arabera, Bermeoko udal-irratia aktibatzea aukera bat izan daiteke komunikazio-politika publikoak modernizatzeko eta zabaltzeko, betiere politika horien helburua interes orokorrari laguntzea bada, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra izateko beharra kontuan hartuta.

Zazpigarrena: Erabakiaren ahalmenari dagokionez, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.f artikulua arabera, kudeaketa erak eta municipalizazio espedienteak onartzea osoko Bilkurari dagokio.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Bermeoko Udalak maiztasun modulatuak uhin metrikoren bidezko irati-lizentzia eskuratzeko egin behar diren izapideak egitea onartzea.

BIGARRENA: Idazkaritza sailari, Ekonomia sailari eta Berrikuntza, Gobernu Ireki eta Herritarren Arreta sailari erabakiaren barri ematea.



Agiri hau benetakoa dela udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Data: 01/10/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



HIRUGARRENA: Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

4.- 21.2 EXEKUZIO UNITATEKO 14. PARTZELAREN XEHETASUN AZTERLANA BEHIN BETIKO ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=32&t=203>

Xedea

21.2 remuko 14. Partzelaren Xehetasun Azterlana behin betiko onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2025eko maiatzaren 9an, 21.2 esku-hartze eremuko 14. partzelaren xehetasun-azterketa aurkeztu zuen Miren Idoia Olabarri Pereda andereak, Construcciones Olabarri S.L. enpresaren izenean. Joseba Martínez Goiri arkitektoak egin du xehetasun-azterketa.

Bigarrena.- 2025eko ekainaren 6an, 21.2 esku-hartze eremuko 14. partzelaren xehetasun-azterketa zuzenduta aurkeztu zuen Miren Idoia Olabarri Pereda andereak, Construcciones Olabarri S.L. enpresaren izenean. Joseba Martínez Goiri arkitektoak egin du xehetasun-azterketa.

Hirugarrena.- 2025eko ekainaren 9an, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Laugarrena.- 2025eko uztailaren 1ean, udal teknikariak txostena egin zuen.

Bosgarrena.- 2025eko uztailaren 1ean, 2025 3998 Alkatetza Dekretuz 21.2 exekuzio unitateko 14. Partzelako Xehetasun Azterlana hasieraz onartu zen.

Seigarrena.- 2025eko uztailaren 14an (BAO 133.zk), Bermeoko 21.2 eremuko 14. Partzelaren Xehetasun Azterlanaren hasierako onarpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 20 egunen aurrean jendaurrean jartzeko asmoz.

Era berean, iragarkia pare bat aldizkaritan ere argitaratu da.

Zazpigarrena.- 2025eko uztailaren 30ean alegazioak jaso ziren. Horiek, 2025eko irailaren 1ean erantzun ziren.

Argudioak

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Fecha: 01/10/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia



Lehenengoa.- Hirigintzari eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 98. artikuluan xehetasun azterlanen izapidetzea arautzen da:

98. artikulua.- Xehetasun-azterketak izapidetu eta onartzea.

1.- Xehetasun-azterketei eskumena duten udalek emango diete hasierako onespina hiru hilabeteko epean.

2.- Hasierako onespina eman ondoren, jendaurrean jarriko dira 20 egunez, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaraturik, nahi duenak aztertu eta alegazioak egin ditzan.

3.- Xehetasun-azterketei behin betiko onespina ematea udalari dagokio; horretarako, hiru hilabeteko epea izango du, hasierako onespina ematen zaienetik. Epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igarotakoan, xehetasun- azterketa alderdietako batek eskatuta aurkeztu baldin bada, interesdunak ezetsia izan dela iritzi ahal izango dio.

2020ko martxoaren 31n, 46/2020 DEKRETUA Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen. Horren 33 artikulua, xehetasun-azterketen onespenak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. artikuluan aurreikusitako izapideak errespetatuko dituela xedatzen du.

Kasu honetan, 2/2006 Legeko 98. artikuluan xedatutako prozedura jarraitu da eta jendaurrean 20 eguneko epean egon ondoren jaso diren alegazioak erantzun dira; beraz, xehetasun azterlana behin betiko onartu daiteke.

Hori hórrela, Tokiko Araubideari buruzko 1985eko apirilaren 2ko Oinarrizko Legeko 22. artikulua arabera, xehetasun azterlana behin betiko onartzea Osoko Bilkurari dagokio.

Bigarrena: Behin betiko onarpenaren argitalpenari dagokionez, honako hau xedatzen du 2/2006 Legeak:

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Data: 01/10/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



89. artikulua.– Argitalpena eta indarraldia.

1.– Hirigintzako planen onarpenari dagokionez, plangintza onartu duen herri-administrazioak jendaurrean jarriko du haren eduki osoa, eta edozein pertsonak kontsultatu ahal izango du dokumentazioa.

2.– Foru-aldundietan, hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboa egongo da.

3.– Artikulu honetako 5. zenbakian aipatzen den argitalpena egin aurretik, hirigintzako planak eta haien aldaketak eta berrikuspenak igorriko dituzte udalek, dagokion foru-aldundiko erregistroan sartzeko. Erregistro horretan ematen diren hirigintza-planen dokumentuen kopiek dokumentu horien edukia egiaztatzen dute lege-ondorio guztietarako.

4.– Aurreko bi paragrafoetan aipatzen diren erregistroek –euskarri informatikoa eta ohikoa izango dituzte– elkarrekin konektatuta egongo dira plangintzaren euskal erregistroa eratzeke –lurraldearen antolamenduko eskumenak dituen sailak kudeatuko du–. Edozein modutan, egoki antolatuta egon behar dute, kudeaketa-ahalmen nahikoa izan behar baitute, erregistratutako plangintza osatzen duen dokumentazioa edozein pertsonak kontsultatu ahal duela bermatzeko.

5.– Lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko dira, eman dituen organoaren xedapen baten bitartez, behin betiko onespina emateko erabakiak eta, gutxienez, hirigintzako arauak, eta orobat lizentziak eteteko eta etendura kentzeko erabakiak ere, hirigintzako planek aurreko artikuluan adierazitako ondorioak izan ditzaten eta indarrean jar daitezten. Behin betiko onespina emateko erabakiak, gainera, dagokion lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan ere argitaratuko dira. Bi kasuetan, oso osorik argitaratuko dira, bai eta dagokion hirigintza plana aurreko paragrafoetan aipatutako erregistroan jaso dela adierazi ere.

6.– Hirigintza-planen antolamendu-zehaztapenak indarrean egongo dira harik eta planon berrikuspena edo aldaketa indarrean jarri arte.

Bestalde, 46/2020 Dekretuak honako hau xedatzen du:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Fecha: 01/10/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



7. artikulua.– Lurralde- eta hirigintza-plangintzaren behin betiko onespenaren publikotasuna.

1.– Lurralde- eta hirigintza-plangintzaren behin betiko onespenean gutxienez honako hauek sartuko dira:

- a) Aipatutako ebazpenaren eduki osoa.
- b) Antolamendu-arauak edo, hala badagokio, hirigintza-arauak.
- c) Zehaztapenak aplikatzeko arauak lurralde-antolamenduaren gidalerroen kasuan.

2.– Ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren mendeko planen kasuan, plan horiek behin betiko onesteko eskumena duen organoak iragarki bat argitaratu beharko du, honako alderdi hauek bilduko dituen:

- a) Laburpen bat, alderdi hauek jasoko dituen:
 - 1) Nola integratu diren planean ingurumen-arloko alderdiak.
 - 2) Planean nola hartu diren kontuan ingurumen-azterketa estrategikoa, jendaurreko informazioaren emaitzak eta kontsulten emaitzak, barnean hartuta, hala badagokio, mugaz gaindiko kontsultak eta ingurumen-arloko adierazpen estrategikoa, bai eta prozesuan sortutako desadostasunak ere, halakorik izan bada.
 - 3) Aukeratutako hautabidea hautatzeko arrazoiak, aintzat hartutako gainerako hautabideekin alderatuta.
 - 4) Zer helbide elektronikotan jarriko duen jendaurrean organo substantiboak planaren eduki osoa.

b) Planaren aplikazioak ingurumenean izandako eraginen jarraipena egiteko hartu diren neurriak.

3.– Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren mende jarritako planen kasuan, argitalpenean, plan horien behin betiko onespenaren eduki osoa eta antolamendu-arauak biltzeaz gainera, erreferentzia egingo zaio ingurumen-txosten estrategikoa argitaratu den aldizkari ofizialari.

Erabakia

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Fecha: 01/10/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Ander Garate Ormaza (EAJ-PNV) Osoko Bilkurako aretotik irten egin da puntu honetan.

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA.- 21.2 Exekuzio Unitateko 14. partzelaren Xehetasun Azterlana behin betiko onartzea.

BIGARRENA.- Behin betiko onespena jaso duen agiriaren ale bat Bizkaiko Foru Aldundira bidaltzea, hirigintza-planeamenduan dagokion erregistroan sartzeko eta 2/2006 Legeak 89.3 artikuluan agindutakoa betetzeko.

HIRUGARRENA.- Behin betiko onespena BAOean eta egunkarietan argitaratzea. Iragarkian honako hauek jaso beharko dira: ebazpenaren edukia, antolamendu arauak edota hirigintzako arauak.

5.- EAJ-PNV-K AURKEZTUTAKO “ELKARBIZITZAREN ALDE ETA ERTZAINZA ETA UDALTZAINGOEN DEFENTSAN” MOZIOA ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=32&t=311>

Ander Garatek mozioa irakurri du:

“ADIERAZPENA: ELKARBIZITZAREN ALDE ETA ERTZAINZA ETA UDALTZAINGOEN DEFENTSAN”

Herritarren arteko elkarbizitza eta segurtasuna dira gizarte demokratiko ororen oinarritzko zutabe. Ertzaintza eta udaltzaingoak, Euskal Polizia Kidego guztiak, funtsezko elementu dira herritarren segurtasuna eta legeen betepena bermatzeko. Euskal herrikide ditugun aldetik, babesten duten Herritik hurbil egiten dute beren lana, mendebaldeko gizarteetako estandar demokratikoak betez. Erakundeei dagokie Ertzaintzak zein udaltzaingoek gure gizartean egunero egiten duten lana



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Fecha: 01/10/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



babestea eta balioestea.

Hala ere, azken asteotan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldeetan, udaltzaingoen eta Ertzaintzaren kontrako eraso larriak eta seinalamenduak egin dira, soilik beren lana egin dutelako. Polizien bulego eta tokiak erasotzera eta euskal polizien lana eragoztera iritsi dira.

Halaber, seinalamendu eta mehatxu larriak egin dira hiritarrek aukeratuta gobernuan lan egiten duten ordezkari publikoen kontra. Iraganeko garaiak gogora ekartzen dizkiguten jarduera eta jarrerak dira horiek. Erakunde guztiek eta ordezkari publikoek ekintza hauek guztiak salatu eta gaitzetsi behar dituzte, sekula babestu gabe, berriro gerta ez daitezen.

Hori dela eta Bermeoko Udalak, errespetuan oinarritutako kultura demokratikoa eta elkarbizitzaren printzipioak betez, ondorengoak proposatzen ditu;

1) Ertzaintzaren, udaltzaingoen eta ordezkari publikoen kontrako **erasoak,**

seinalamenduak eta jokaera bortitzak gaitzestea.

2) **Ertzaintzak eta udaltzaingoe**k hiritargoa babesteko **egiten duten ezinbesteko**

lana aitortzea, eta egiten duten lana erabat babestea.

3) Ertzaintzaren, udaltzaingoen eta ordezkari publikoen kontrako **jokaera bortitzak**

eta mehatxuak bertan behera eskatzeko deia egitea, errespetuan

oinarritutako elkarbizitza bermatzeko.

4) Ertzaintza euskal autogobernuaren adierazgarri eta polizia hurbil eta demokratikoaren eredu dela **adieraztea.**”

Erabakia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Fecha: 01/10/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



Udal Osoko Bilkurak, gehiengo soilagaz, EAJ-PNVren 8 aldeko botoekin , EH Bildu 4 kontrako botoekin eta GUZAN-en abstentzioagaz, “Elkarbizitzaren alde eta Ertzaintza eta udaltzaingoen defentsan” mozioa onartzea erabaki du

6.- EH-BILDU ETA GUZAN-EK AURKERTUTAKO “ DEMOKRAZIAREN ALDE ETA POLIZIA-EREDUA BERRIKUSKETEAREN ALDEKO MOZIOA” ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=32&t=663>

Nadia Nemeh-k mozioa irakurri du:

“DEMOKRAZIAREN ALDE ETA POLIZIA-EREDUA BERRIKUSTEAREN ALDEKO MOZIOA”

Azken asteotan, Euskal Herriko hainbat tokitan zenbait erakunde eta ordezkari publikoen aurkako hainbat gertaera eta adierazpen izan dira, adierazpen askatasunaren

eta espazio publikoaren errespetuaren muga onargarriak gainditu dituztenak. Udal hau

ez dator bat jarduteko modu horiekin, eta uste du modu egokian baztertu behar direla,

axolagabekeria eta gehiegizko jardun interesatua saihestuz.

Illo horretan, Udal honek gaitzetsi egiten du gertakari horien instrumentalizazio politikoa, kritika sozial eta politiko osoa kriminalizatzeko, bai eta bidezko protesta ere.

Logika bat inposatu nahi da, non indar polizialekiko edo horiek zuzentzen dituztenekiko

ezinegon edo zalantza adierazpen oro eraso onartezintzat interpretatzen den



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Fecha: 01/10/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



automatikoki, eta hori printzipio demokratikoen aurkakoa da.

Polizia-kidegoen jarduera kritikatzeari, haien funtzionamendu-eredua zalantzan jartzea

edo abusu-gertakariak salatzea ez da bizikidetzaren aurkako erasoa. Bizikidetzaren

aurka egiten duena disentsorako espazio oro ixtea da, erakundeak kritikaren aurrean

blindatzea eta erakundeen gaitzespenaren balioa hutsaltzea.

Gertakari horiek neurrigabeki dimentsionatzen diren bitartean, herritarren bizikaltateari

eragiten dioten sakoneko eztabaidak isilarazten dira: Osakidetzaren

endekatzea, etxebizitza-larrialdia, zaintza-krisia edo desproporzionatutzat jotako

polizia-interbentzioekiko kezka sozial gero eta handiagoa.

Arkautiko Akademiako zuzendariak, bere taldearekin batera, dimisioa eman berri du,

barne-erresistentziekin talka egin ondoren. Horrek erakusten du sistemak egiturazko

berrikuspena behar duela.

Horregatik guztiagatik, Bermeoko udaleko Plenoak, honako hau ADOSTEN DU:

1.-Erakundeekiko errespetuaren edo adierazpen-askatasunaren bidezko erabileraren

mugak gainditzen dituen jarduera oro gaitzestea.

2.-Kritika politiko eta sozial legitimoa eta herritarren protesta kriminalizatzeko, izaera

horretako gertaera puntualak erabiltzeko saiakera erabat baztertua.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Fecha: 01/10/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



3.-Berrestea kritikarako eskubidea, baita polizia-indarrekiko ere, edozein demokrazia osasungarriren muinaren parte dela, eta ezin dela murriztu edo deslegitimatu.

4.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea polizia-eredua sakon berrikusteko hausnarketa eta herri

prozesua abiatu dezala, gardentasuna, kontrol demokratikoa, proportzionaltasuna eta

zerbitzu publikoa bermatzeko.

5.-Indar politiko guztiei dei egitea eztabaida instituzionala herritarrei eragiten dieten

egiturazko arazoetan zentratzera, hala nola, osasun publikoa, etxebizitza, zainketak, laneskubideak eta polizia-eredua.”

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, gehiengo soilagaz ,EH BILDU (4 alkateak bere kalitatezko botoaren erabilera egiten dau)eta GUZANen (4) aldeko botoekin eta EAJ-PNVren 8 kontrako botoekin “Demokraziaren alde eta polizia-eredua berrikusketearen aldeko mozioa”onartzea erabaki du.

7.- EGONKORTASUN HELBURUAREN BETETZEAREN TXOSTENA 2024KO KITAPENEAN. FORU ARAUA 5/2013KO 6.5 ARTIKULUAREN PROZEDURA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=32&t=1534>

“Gaia

Egonkortasun helburuaren betetzearen txostena 2024ko kitapenean. Foru Araua 5/2013ko 6.5 artikuluen prozedura, Osoko Bilkuran barri emateko.

KONTU-HARTZAILETZAREN 11/2025 ZENBAKIKO TXOSTENA, 2024KO KITAPENEAN EGINDA AGERTZEN DIREN KREDITU ALDAKETAREN FINANTZA-IRAUNKORTASUNARI BURUZKOA

CSV: 07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E90014272B00Y5S0T2L8G5F9

Sinadurea eta data

JOSE RAMON ALBERDI ASTEINZA-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/10/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/10/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 01/10/2025 12:01:45

DOCUMENTO: 20251320747

Fecha: 01/10/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia



GAIA: Aurrekontu-egonkortasunaren helburua egitura-orekako edo -superabiteko egoera batekin identifikatzen da. Egoera hori, finantzaketa-ahalmenari dagokionez, ziklo ekonomikoan zehar konputatzen da, Nazio eta Eskualdeko Kontuen Europako Sisteman (SEC-10) jasotako definizioaren arabera.

Aurrekontuak eta gastu edo diru-sarrerei eragiten dieten gainerako jardunak aurrekontu-egonkortasuneko esparruan egin, onartu eta gauzatu behar dira; esparru hori koherentea izango da Europako araudiarekin, eta Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak onartutako akordioen esparruan egingo dira, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak Estatuarekin Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazio guztientzako lortutako akordioak ikusita.

Horrela, aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzat joko da hasierako aurrekontuek edo, hala badagokio, aldaketek eta aurrekontu-likidazioek, finantzaketa-gaitasunari dagokionez, ezarritako oreka edo superabita lortzen dutenean.

